Bestelako Xedapenak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

32

AGINDUA, 2010eko abenduaren 1ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, Donostia-San Sebastiángo (Gipuzkoa) «Presentación de María» Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularitatea aldatzeko baimena ematen duena.

Donostia-San Sebastiángo (Gipuzkoa) «Presentación de María» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularra den «Congregación Hermanas de la Presentación de María» entitateko legezko ordezkariak eskatuta abiarazi den espedientea aztertu dugu. Espediente horretan, hain zuzen, baimena eskatzen da ikastetxe horren titularitatea aldatzeko.

Espediente horri Gipuzkoako Hezkuntza Ordezkaritzak egin dizkio izapideak, indarreko arauek eskatzen dituzten agiriak erantsi zaizkio eta eskumena duten erakundeek egin diote txostena.

Heziketarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Ikastetxe pribatuetan unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenei buruzko apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3ko 332/1992 Errege Dekretua aldatzen duen otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretua, eta alor honetan ezar daitekeen indarreko legeria aztertu ondoren, hauxe

EBATZI DUT:

1. artikulua.– «Presentación de María» Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuaren titularitatea aldatzeko baimena ematea: gaur egun, titularitatea «Congregación Hermanas de la Presentación de María» entitateak du, eta aurrerantzean María Rivier Fundazioak izango du; berak subrogatuko ditu ikastetxearen betebehar eta eskubide guztiak. Ikastetxea Donostiako (Gipuzkoa) Mandasko dukearen pasealekuko 1ean dago eta 20004435 kode-zenbakia du.

2. artikulua.– Titularitate aldaketa Ikastetxeen Erregistroan inskribatuko da. Horrek ez du inolako eraginik izango ikastetxearen ohiko jardunean.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

32

ORDEN de 1 de diciembre de 2010, de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, por la que se autoriza el cambio de titularidad del Centro Privado de Educación Infantil, Primaria y Secundaria «Presentación de María» de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

Examinado el expediente iniciado por la representante legal de la entidad «Congregación Hermanas de la Presentación de María», titular del Centro Privado de Educación Infantil, Primaria y Secundaria «Presentación de María» de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa), en solicitud de autorización para el cambio de titularidad de dicho centro.

Resultando que el citado expediente ha sido tramitado por la Delegación Territorial de Educación de Gipuzkoa, que se ha unido al mismo la documentación exigida por la normativa vigente y que ha sido informado por los organismos competentes en la materia.

Vista la Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del derecho a la Educación, el Real Decreto 332/1992, de 3 de abril, sobre autorizaciones de centros docentes privados para impartir enseñanzas de régimen general no universitarias, el Real Decreto 131/2010, de 12 de febrero, por el que se modifica el Real Decreto 332/1992, de 3 de abril, y demás legislación vigente aplicable en la materia,

RESUELVO:

Artículo 1.– Se autoriza el cambio de titularidad del Centro Privado de Educación Infantil, Primaria y Secundaria «Presentación de María», con n.º de código: 20004435, y con domicilio en la calle Duque de Mandas, n.º 1, del municipio de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa), ostentada por la Congregación Hermanas de la Presentación de María, que en lo sucesivo lo será por la Fundación María Rivier, quedando ésta subrogada en la totalidad de las obligaciones y derechos que afecten al centro cuya titularidad se le reconoce.

Artículo 2.– El cambio de titularidad se inscribirá en el Registro de Centros Docentes y el mismo no afectará al normal funcionamiento del Centro.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu Agindu honek.

Bigarrena.– Agindu honen kontra aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, hil biko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 1a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Orden surtirá efectos a partir del día 1 de enero de 2011.

Segunda.– Contra la presente Orden podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de diciembre de 2010.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.